Urnietako udala

# 2022KO URRIAREN 18KO EZ OHIKO UDALBATZARRAREN AKTA
# ACTA DEL PLENO EXTRAORDINARIO DEL 18 DE OCTUBRE DE 2022

**Akta zenbakia:** 11/2022
**Bilera data:** 2022-10-18
**Bilera mota:** Ez-ohiko osoko bilkura
**Deialdia:** Lehenengoa
**Ordu:** 19:00-19:50
**Tokia:** Udaletxeko areto nagusia
**Interneteko sarbidea:** zuzenean youtube. https://www.youtube.com/watch?v=jZEHWueZpLg&list=PLEFej5YdNDj6EDOYlMJmEKkiLw3Q4Mg2H

**Bertaratutakoak:**

**Alkatea:** Jorge Segurado Iriondo

**Zinegotziak:**

Mikel Pagola Tolosa
Lucía Goñi Martínez
Juan Luis Goikoetxea Benzala
David Rosco Jorge
Mikel Artola Pagola
Agurtzane Mercader Ubillos
Ainara De Miguel Berasategui
Nekane Ubillos Cipitria
Ainhoa Jauregi Cabezón
Hermenegildo González Morán
Consuelo Frutos Gonzalez

**Idazkaria**:
Kristina Etxeberria Osoro

**Ezin etorria adierazi dute:**
Xabier Yurramendi Garmendia

Urnietan, 2022ko urriaren 18an, goian adierazitako zinegotzi jaun-andreak bildu dira, 19:00tan, Jorge Segurado Iriondo alkatea lehendakari dutela, ohiko bilera egiteko.

**Acta nº:** 11/2022
**Fecha:** 18-10-2022
**Tipo de reunión:** Pleno extraordinario
**Convocatoria:** Primera
**Hora:** 19:00-19:50
**Lugar:** Salón de plenos del Ayuntamiento
**Acceso internet:** canal youtube https://www.youtube.com/watch?v=jZEHWueZpLg&list=PLEFej5YdNDj6EDOYlMJmEKkiLw3Q4Mg2H

**Reunidos:**

**Alcalde:** Jorge Segurado Iriondo

**Concejales:**

Mikel Pagola Tolosa
Lucía Goñi Martínez
Juan Luis Goikoetxea Benzala
David Rosco Jorge
Mikel Artola Pagola
Agurtzane Mercader Ubillos
Ainara De Miguel Berasategui
Nekane Ubillos Cipitria
Ainhoa Jauregi Cabezón
Hermenegildo González Morán
Consuelo Frutos Gonzalez

**Secretario:**
Kristina Etxeberria Osoro

**Excusan su ausencia**:
Xabier Yurramendi Garmendia

En la villa de Urnieta a 18 de octubre de 2022, siendo las 19:00 horas se reúnen los concejales arriba relacionados, bajo la Presidencia del Sr. Alcalde Jorge Segurado Iriondo, al objeto de celebrar sesión ordinaria.



San Juan, 5 - 20130 Urnieta Gipuzkoa - P2007700D · 943 008 000 · 943 008 037 · urnietakoudala@urnieta.eus · urnieta.eus

Urnietako udala

# 2022KO URRIAREN 18KO EZ OHIKO UDALBATZARRAREN AKTA
# ACTA DEL PLENO EXTRAORDINARIO DEL 18 DE OCTUBRE DE 2022

Beharrezko quoruma gainditu delarik eta lehendakariak bilkura hasi duelarik, eguneko gai zerrendan agertzen diren puntuak aztertzeari ekin diote.

Superado el quórum necesario y abierta la sesión por la Presidencia, se procede al desarrollo de los puntos del orden del día.

**AZTERGAIAK:**

1. **2022ko maiatzaren 31eko, uztailaren 26ko, irailaren 8ko eta 27ko aktak onartzea.**
2. **2023rako Ordenantza Fiskalen aldaketaren hasierako onarpena– esp 2022KORO0030.**
3. **Etxeberri plaza 13ko lokala interes bereziko edo udal onurako izendatzea. - esp 2022KICH0004.**
4. **Irurako Udalak Urnietako Udaleko H.A.Z.eko informatzaile plaza bat eta Irurako Udaleko Idazkaritzako administrari plaza bat betetzeko egindako kudeaketa-gomendioa onartzea. – esp-2022IORO0075.**
5. **Lehiaketa bidez ondasun-izaerako higiezina besterentzea: H.I.E. 28 “MIRAVALLES”eko 6861 Erregistro-Finka. (Udalbatza) 2022IORO0076 Esp.**

**ORDEN DEL DIA:**

1. **Aprobar las actas de las sesiones plenarias del 31 de mayo, 26 de julio, 8 y 27 de septiembre de 2022.**
2. **Aprobación inicial de la modificación de las Ordenanzas Fiscales para 2023.- exp. 2022KORO0030.**
3. **Declarar de especial interés o utilidad municipal el local de la Plaza Etxeberri 13. - exp. 2022KICH0004.**
4. **Aceptar la encomienda de gestión realizada por el Ayuntamiento de Irura para la la provisión de una plaza de informador/a del S.A.C. del Ayuntamiento de Urnieta y una plaza de Administrativo/a de Secretaría del Ayuntamiento de Irura. – exp 2022IORO0075**
5. **Enajenación mediante concurso de bien inmueble patrimonial: Finca Registral 6861 del A.I.U. 28 “MIRAVALLES”. (Pleno) Exp. 2022IORO0076.**

**<u>Gai Zerrendatik Kanpo</u>**

Gai zerrendatik kanpo ondorengo gai hau sartzea erabaki da aho batez.

1. **2023. Urterako autotaxi zerbituzaren tarifak onartzea. (2022IORO0078 esp.).**

**<u>Fuera del orden del día</u>**

Se acuerda por unanimidad incluir fuera del orden del día el siguiente asunto.

1. **Aprobación tarifas servicio de autotaxi para el año 2023. (exp. 2022IORO0078)**

******

**1.- 2022ko maiatzaren 31eko, uztailaren 26ko, irailaren 8ko eta 27ko aktak onartzea.**

Hermek dio onartzen dituztela.

Ainarak dio, ez dituztela aztertu eta hurrengorako begiratuko dituztela.

******

**1.- Aprobar las actas de las sesiones plenarias del 31 de mayo, 26 de julio, 8 y 27 de septiembre de 2022.**

Herme dice que las aprueba.

Ainara dice que no las han estudiado y que las mirarán para la próxima vez.



San Juan, 5 - 20130 Urnieta Gipuzkoa - P2007700D 943 008 000 943 008 037 urnietakoudala@urnieta.eus urnieta.eus

**2.- 2023rako Ordenantza Fiskalen aldaketaren hasierako onarpena– esp 2022KORO0030.**

******

Gipuzkoako Hazienda Lokalak erregulatzen dituen Uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren 6. artikuluak ezartzen duenaren arabera Gipuzkoako udalerriei dagokie, foru arau honetan ezarritakoaren barruan, beren tributuak ordainaraztea, kudeatzea, likidatzea, ikuskatzea eta biltzea, udal zergen foru arau erregulatzaileetan eta horiek garatzeko gainerako xedapenetan ezar daitezkeen berezitasunak eragotzi gabe, Zergen Foru Arau Orokorrean eta hori garatzeko emandako xedapenetan aurreikusitakoaren arabera.

Ordenantza fiskalen bitartez, udalerriek aurreko apartatuan aipatutako araudia egokitu ahal izango dute bakoitzaren antolaketa eta funtzionamendu erregimenera.

Bestalde, udalerriek tasak finkatu eta exigitu ahal izango dituzte, udalaren herri jabariaren erabilera pribatibo edo probetxamendu bereziagarentik, bai eta subjektu pasiboari bereziki egokitu, eragin edo onura ekartzen dioten eta udalaren eskumenekoak diren zerbitzu publikoak emateagatik edo jarduera administratiboak egiteagatik ere.

Ordenantza Fiskalen aldaketa proposamenaren inguruan Kontuhartzailearen txostena ikusirik.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 4.1.a) artikuluak toki-erakundeei ematen dien erregelamenduak egiteko ahala kontuan hartuta, zergak ezarri eta eskatu ahal izango dira beren ordenantza fiskalen bidez. Eskumen hori osoko bilkurari dagokio, lege horren 22.2.d) artikuluan xedatutakoaren arabera.

Jorgek gaia azaldu du.

Hermek dio, alde bozkatuko dutela. Egungo egoera ekonomikoa zein den ikusita, udalak karga garrantzitsueri aurre egin beharko diela, eskeintzen dituzten zerbitzeungaitik, eta esfortzu horrek pena mereziko duelakoan daude. Bestalde, hobarien

**2.- Aprobación inicial de la modificación de las Ordenanzas Fiscales para 2023.- exp. 2022KORO0030.**

******

El artículo 6 de la Norma Foral 11/1989, de 5 de julio, reguladora de las Haciendas Locales de Gipuzkoa, establece que corresponde a los municipios guipuzcoanos, en el marco de lo establecido en esta Norma Foral, la exacción, gestión, liquidación, inspección y recaudación de sus tributos, sin perjuicio de las especialidades que puedan establecerse en las Normas Forales reguladoras de los tributos municipales y demás disposiciones de desarrollo, de conformidad con lo previsto en la Norma Foral General Tributaria y en las disposiciones dictadas en su desarrollo.

A través de las ordenanzas fiscales, los municipios podrán adaptar la normativa a que se refiere el apartado anterior al régimen de organización y funcionamiento de cada uno de ellos.

Por su parte, los municipios podrán fijar y exigir tasas por la utilización privativa o el aprovechamiento especial del dominio público municipal, así como por la prestación de servicios públicos o la realización de actividades administrativas de competencia municipal que afecten, afecten o beneficien especialmente al sujeto pasivo.

Visto el informe de la Interventora sobre la propuesta de modificación de las Ordenanzas Fiscales

En virtud de la potestad reglamentaria que el artículo 4.1.a) de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases de Régimen Local, atribuye a las Entidades Locales, el establecimiento y la exigencia de tributos podrán realizarse mediante ordenanzas fiscales propias. Esta competencia corresponde al Pleno en virtud de lo dispuesto en el artículo 22.2.d) de la citada Ley

Jorge ha expuesto el tema.

Herme dice votarán a favor. A la vista de la situación económica actual, el Ayuntamiento deberá hacer frente a importantes cargas por los servicios que ofrece, y creen que ese esfuerzo merezca la pena. Por otra parte, dice que les gustaría hacer cambios



San Juan, 5 - 20130 Urnieta Gipuzkoa - P2007700D 943 008 000 943 008 037 urnietakoudala@urnieta.eus urnieta.eus

aldaketak egitea gustatu litzaikela dio, gutxien daukatenei bonifikazio altuagoak jarriz. Zaborren gaineko tasen inguruko hobaria aztertu eta berrikusi beharko litzakela eta baita pistinako kuoten hobaria, igerileku klimatizaturik ez eukitzearren ere. Buruntzaldean egonda ere, zenbat eta zerbitzu gutxiago, kuota txikiago izan beharko litzakela dio.

en las bonificaciones, aplicando mayor bonificación a los que menos tienen. Que la bonificación en las tasas de la recogida de basura debería ser estudiada y revisada y también las cuotas de las piscinas climatizadas. Dice que aun estando en Buruntzaldea, a menos servicios, , la cuota debería ser menor.

Ainarak dio, hasieratik komentatu zutela familia figura desberdinak kontsideratu beharra zegoela eta zein zordunpe maila daukaten baloratu beharra dagoela. Ordenantza fiskala mantenduta ere, herria aldatzen doala dio, eta Mikel Pagola alkate zenean taula bat landu zutela elkarlanean, baina ordundik ez dela taula honekin lan gehiagorik egin.
Herritargoari ez zaiola trasladatzen tasen igoera, baina zeharka herritargoak ordaintzen duela udalak ordaintzen duena.
Ordenatza eta aurrekontuetan aldaketa bat behar duela udalak, eta beraz, ez dituztela onartuko ordenantzak.

Ainara dice que desde el principio comentaron que había que tener constancia de las diferentes modelos familiares y valorar el nivel de endeudamiento que tienen. Dice que aún congelando la ordenanza fiscal, el pueblo va cambiando, y que cuando Mikel Pagola era alcalde trabajaron conjuntamente una tabla, pero que desde entonces no se ha trabajado más con esta tabla.
Que al ciudadano no se le traslada directamente la subida de tasas, pero que indirectamente el ciudadano paga lo que paga el ayuntamiento.
Que el ayuntamiento necesita una modificación de ordenanzas y presupuestos, por lo que no van a aprobar las ordenanzas.

Mikelek dio, herritarrei zuzenena ez eragiteko bideetako bat ordenantzen konjelazioa dela, eta horrek udalari esfortzu bat ekarriko diola, kosteak nabarmen igoko direlako, eta beraz nahiz eta zeharka herritargoari afektatuko dionez zuzenean ez diela eragingo. Ainararen azken aklarazioen inguruan, dio, batzar informatiboan komentatu zutela gai hau jorratzeko bilera bat eskatu zutela, baina, deialdirik ez da egin ez zutelako gai honetaz gehiago sakontzerik behar.

Mikel dice que una de las vías para no afectar más directamente a la ciudadanía es la congelación de las ordenanzas, lo que supondrá un esfuerzo para el Ayuntamiento, ya que los costes van a subir considerablemente, por lo que no va a afectar directamente al ciudadano. Sobre las últimas aclaraciones de Ainara, dice que en la asamblea informativa comentaron que habían pedido una reunión para tratar este tema, pero no se ha convocado porque no necesitaban profundizar más en este tema.

Hermek desadostasuna azaldu du, izan ere, bere ustetan herritargoari eragiten dio udalari eragiten dion guztiak (uraren prezio igoera adibidez, %19ko hazkuntza izan du), errekurtso munizipalak optimizatu behar direla uste dute.

Herme muestra su desacuerdo porque considera que al ciudadano le afecta todo lo que afecta al ayuntamiento, como la subida del precio del agua (+19%) que creen que hay que optimizar los recursos municipales.

Ainarak dio, deialdia egin zela, baina ezetza eman zutela, inposaketa bat zetorkiela uste zutelako. Gastuen optimizazio bat behar dela, denon hobe beharrez.

Ainara dice que se convocó la reunión, pero que no aceptaron dicha reunión, ya que pensaban que les venía una imposición. Que hace falta una optimización de los gastos por el bien de todos.

Mikelek dio, ados dagoela erabaki honek zeharka herritargoari afektatzen diola pentsatzearekin. Zerbitzuei etekin haundiagoa atera beharko zaiela, eta ordenantza fiskalen kongelazioak ez daukala zer ikusirik emango den zerbitzu mailarekin.

Mikel dice que está de acuerdo en que esta decisión afecta indirectamente a la ciudadanía. Que habrá que sacar un mayor rendimiento a los servicios y que la congelacion de las ordenanzas fiscales no tiene nada que ver con el nivel de servicio que se va a prestar



San Juan, 5 - 20130 Urnieta Gipuzkoa - P2007700D 943 008 000 943 008 037 urnietakoudala@urnieta.eus urnieta.eus

Bozketara jo da, honako emaitzarekin:

Alde: 9
Urnietako Eusko Abertzaleak: 7
Grupo municipal socialista: 2

Kontra: 3
Urnietako Eh Bildu:3

Abstentzioa: 0

Ondorioz, ezarritako lege tramitazioa jarraituta, eta ikusirik Antolakuntzako Batzorde Informatzaileak 2022ko urriaren 5ean egindako irizpena, Udalbatzak gehiengo osoz honako hau

**ERABAKIA:**

**Lehenengoa.-** 2023rako Ordenantza Fiskalen aldaketaren hasierako onarpena ematea onartzea. (I Eranskina)

**Bigarrena.-** 30 lanegunez iragarki hau GAO-n argitaratu eta hurrengo lanegunetik hasita jendaurreko informazio-aldian jartzea interesdunek espedientea azter dezaten eta bidezkoak derizkioten erreklamazio eta iradokizunak aurkez ditzaten.

Espedientea Udaleko idazkaritzan dago 08:30 etik 14:30etara .

Erreklamazioa aurkezten zaion organoa: Udalbatza

Adierazitako jendaurreko informazio-aldia igaro ondoren ez balitz aurkeztu erreklamazio edo oharrik, behin betiko onartutzat joko da aipatutako kreditu aldaketarako espedientea erabaki berririk hartzeko beharrik gabe.

**3.- Etxeberri plaza 13ko lokala interes bereziko edo udal onurako izendatzea. - esp 2022KICH0004.**

******

2022ko ekainaren 14ko Udalbatzan Udalak Etxeberri Plaza 13 00 001 an dauden udal titulartasuneko lokalak Gipuzkoako Foru Aldundiari doan lagatzea onartu zuen.

Se ha procedido a la votación, con el siguiente resultado:

A favor: 9
Urnietako Eusko Abertzaleak: 7
Grupo municipal socialista: 2

En contra: 3
Urnietako Eh Bildu: 3

Abstención: 0

En consecuencia, realizada la tramitación legalmente establecida y visto el Dictamen de la Comisión Informativa de Organización de 5 de octubre de 2022, el Pleno ha adoptado por mayoría absoluta el siguiente

**ACUERDO:**

**Primero.-** Aprobar inicialmente la modificación de las Ordenanzas Fiscales de 2023 (Anexo I).

**Segundo.-** Someter el expediente a información pública durante un plazo de 30 días hábiles a partir del día siguiente a la publicación de este anuncio en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, a fin de que las personas interesadas examinen el expediente y presenten las reclamaciones y sugerencias que estimen pertinentes.

El expediente se encuentra en la Secretaría del Ayuntamiento en horario de 8:30 a 14:30 horas.

Órgano ante el que pueden presentarse reclamaciones y sugerencias: Pleno.

Si transcurrido el plazo de información expresado no se hubiera presentado reclamación o sugerencia alguna, se tendrá por adoptado definitivamente el acuerdo hasta entonces provisional, sin necesidad de adoptar nuevo acuerdo.

**3.- Declarar de especial interés o utilidad municipal el local de la Plaza Etxeberri 13. - exp. 2022KICH0004.**

******

En sesión plenaria celebrada el 14 de junio de 2022 el Ayuntamiento aprobó la cesión gratuita de los locales de titularidad municipal sitos en la Plaza



San Juan, 5 - 20130 Urnieta Gipuzkoa - P2007700D 943 008 000 943 008 037 urnietakoudala@urnieta.eus urnieta.eus

# 2022KO URRIAREN 18KO EZ OHIKO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO EXTRAORDINARIO DEL 18 DE OCTUBRE DE 2022

Etxeberri 13 00 001 a la Diputación Foral de Gipuzkoa.

Lokal horien xedea Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Zerbitzuen Sailaren hainbat zerbitzu ematea da.

El objetivo de estos locales es la prestación de diversos servicios del Dpto. de servicios sociales de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

2022ko abuztuaren 3an Gipuzkoako Foru Aldundiak Etxeberri Plaza 13 00 001ko lokalak egokitzeko obra baimena eskatu zuen. Honekin batera, obra baimenari dagokion Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergaren udal ordenantza fiskalak bere 18 a) atalean xedatzen duena kontuan izanik, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Zerbitzuen Sailaren hainbat zerbitzu emateko lokala interes bereziko edo udal onurako eraikin bezala onartzea eskatu zuten.

Con fecha 3 de agosto de 2022 la Diputación Foral de Gipuzkoa solicita licencia de obras para acondicionamiento de locales en Plaza Etxeberri 13.00 001 Junto con dicha solicitud, se solicita la declaración del local para la prestación de diversos servicios del Dpto. de servicios sociales de la Diputación Foral de Gipuzkoa, como edificio de especial interés o utilidad municipal, teniendo en cuenta lo dispuesto en el artículo 18 a) de la Ordenanza Fiscal municipal del Impuesto sobre Construcciones, Instalaciones y Obras.

Udalaren Eraikuntza, instalazio eta obraren gaineko zerga arautzen duen udal ordenantzak ezartzen duenaren arabera, Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga kuotaren %95eko hobaria edukiko dute, interes bereziko edo udal onurako izendatuta daudenean, egoera sozial, kultural edo historiko -artistikoak izateagatik edo enplegua sustatzeko baliagarriak gertatzeagatik. Izendapen hau Udalbatzak onartu beharko du batzarkideen gehiengo soilaren aldeko botoekin.

Según lo establecido en la Ordenanza municipal reguladora del Impuesto sobre Construcciones, Instalaciones y Obras, tendrán una bonificación del 95% de la cuota del Impuesto sobre Construcciones, Instalaciones y Obras, cuando estén declaradas de especial interés o utilidad municipal por concurrir circunstancias sociales, culturales, histórico-artísticas o que contribuyan al fomento del empleo. Esta designación deberá ser aprobada por el Pleno con el voto favorable de la mayoría simple de sus miembros.

**Aplikagarria den araudia**

- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen duen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko, 21. artikulua.
- 11/1989 Foru araua, uztailaren 5ekoa, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituena.
- 15/1989 Foru araua, uztailaren 5ekoa Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga arautzen duena
- Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergaren Udal ordentza fiskala.

**Normativa aplicable**

- Artículo 21 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local.
- Norma Foral 11/1989, de 5 de julio, reguladora de las Haciendas Locales de Gipuzkoa.
- Norma Foral 15/1989, de 5 de julio, reguladora del Impuesto sobre Construcciones, Instalaciones y Obras
- Ordenación fiscal municipal del Impuesto sobre Construcciones, Instalaciones y Obras.

Alkateak gaia azaldu du.

El Alcalde expone el tema.

Hermek dio ados daudela.

Herme dice que están de acuerdo.

Ainarak dio, ados daudela gizate onurako gai bat izanik.

Ainara dice que están de acuerdo siendo un tema de utilidad humana.

Mikelek dio, gizarte politiketatik etorritako zerbitzu bat eskeiniko denez, onarpena emango dutela.

Bozketara jo da, honako emaitzarekin:

Alde: 12
Urnietako Eusko Abertzaleak: 7
Udal talde sozialista: 3
Urnietako Eh Bildu: 2

Kontra: 0

Abstentzioa: 0

Ondorioz, ezarritako lege tramitazioa jarraituta, eta ikusirik Antolakuntzako Batzorde Informatzaileak 2022ko urriaren 5ean egindako irizpena, Udalbatzak aho batez honako hau

**ERABAKI DU:**

**Lehenengoa**: Etxeberri Plaza 13 00 001an kokatuta dagoen, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Zerbitzuen Departamentuko hainbat zerbitzu emateko lokala, interes bereziko edo udal onurako eraikina bezala izendatzea, egoera sozial, kultural edo historiko -artistikoak izateagatik edo enplegua sustatzeko baliagarriak gertatzeagatik.

**Bigarrengoa**: Gipuzkoako Foru Aldundiari Etxeberri Plaza 13 00 001ko lokalaren egokitzapena egiteko obra baimenari dagokion Eraikuntza, instalazio eta obraren gaineko zergan %95eko hobaria ematea.

Mikel dice que, como se va a ofrecer un servicio proveniente de las políticas sociales, darán su aprobación.
Se ha procedido a la votación, con el siguiente resultado:

A favor: 12
Urnietako Eusko Abertzaleak: 7
Grupo municipal socialista: 3
Urnietako Eh Bildu: 2

En contra: 0

Abstención: 0

En consecuencia, realizada la tramitación legalmente establecida y visto el Dictamen de la Comisión Informativa de Organización de 5 de octubre de 2022, el Pleno ha adoptado por unanimidad el siguiente

**ACUERDO:**

**Primero:** Declarar como edificio de especial interés o utilidad municipal el local para la prestación de diversos servicios del departamento de servicios sociales de la Diputación Foral de Gipuzkoa ubicado en la Plaza Etxeberri nº 13 00 001, por concurrir circunstancias sociales, culturales, histórico-artísticas o de fomento del empleo que lo justifiquen.

**Segundo:** Conceder una bonificación del 95% del Impuesto sobre la Construcción, Instalaciones y Obra a la Diputación Foral de Gipuzkoa de la licencia de obra para acondicionamiento de local en Plaza Etxeberri 13 00 001.

**4.-. Irurako Udalak Urnietako Udaleko H.A.Z.eko informatzaile plaza bat eta Irurako Udaleko Idazkaritzako administrari plaza bat betetzeko egindako kudeaketa-gomendioa onartzea. – esp-2022IORO0075.**

******

1. Bete beharreko premia:

Bat datoz Irurako Udalaren eta Urnietako Udalaren helburuak, bi udaletako lanpostuen zerrendan hutsik dauden administrarien bi plaza oposizio-lehiaketa bidez betetzeko. Horregatik, lankidetza-esparru batean ekin zitzaion lanari, baterako jarduerak egin ahal izateko, bat datozen helburuak lortzeko.

**4.- Aceptar la encomienda de gestión realizada por el Ayuntamiento de Irura para la la provisión de una plaza de informador/a del S.A.C. del Ayuntamiento de Urnieta y una plaza de Administrativo/a de Secretaría del Ayuntamiento de Irura. – exp 2022IORO0075**

******

1. Necesidad a satisfacer:

Existen coincidencias en los objetivos del Ayuntamiento de Irura y el Ayuntamiento de Urnieta para proveer, por concurso-oposición, dos plazas de Administrativos/a que se encuentran vacantes en la Relación de Puestos de Trabajo de ambos Ayuntamientos. Por ello, se inició el trabajo en un marco de colaboración que permitiese la realización



San Juan, 5 - 20130 Urnieta Gipuzkoa - P2007700D 943 008 000 943 008 037 urnietakoudala@urnieta.eus urnieta.eus

de actividades conjuntas para reforzar la consecución de objetivos coincidentes.

Premia hori Irurako Udalak Urnietako Udalaren alde egindako kudeaketa-gomendio baten bidez bete daiteke.

Esta necesidad podría satisfacerse a través de una encomienda de gestión hecha por el Ayuntamiento de Irura a favor del Ayuntamiento de Urnieta.

2. Aurrekari hauek ikusita:

2. A la vista de los siguientes antecedentes:

**ARAUDI APLIKAGARRIA**

**LEGISLACIÓN APLICABLE**

Honako hauek ezartzen dute aplikatu beharreko legeria:

La Legislación aplicable viene establecida por:

— Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 8., 11. eta 47. artikulutik 53.era bitartekoak.

— Los artículos 8, 11 y 47 a 53 de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.

— Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 6.3 artikulua. Lege horren bidez, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten da Espainiako ordenamendu juridikora.

— El artículo 6.3 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, por la que se transponen al ordenamiento jurídico español las Directivas del Parlamento Europeo y del Consejo 2014/23/UE y 2014/24/UE, de 26 de febrero de 2014.

— Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren lehenengo xedapen gehigarria.

— La Disposición Adicional Primera de la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y Garantía de los Derechos Digitales.

— Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 8.1.b) artikulua.

— El artículo 8.1.b) de la Ley 19/2013, de 9 de diciembre, de transparencia, acceso a la información pública y buen gobierno.

— Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2.p), 47.2.h) eta 57. artikuluak.

— El artículo 22.2.p), 47.2.h) y 57 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases del Régimen Local.

Aurrekoa ikusita, espedienteak aplikatu beharreko legerian ezarritako izapidetzeari jarraitu diola uste da, eta Udal honetako Osoko Bilkurak behin betiko onartu du, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2.p) eta 47.2.h) artikuluetan aurreikusitakoarekin bat etorriz.

Visto cuanto antecede, se considera que el expediente ha seguido la tramitación establecida en la Legislación aplicable, procediendo su aprobación definitiva por el Pleno de este Ayuntamiento, de conformidad con lo previsto en los artículos 22.2.p) y 47.2.h) de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases del Régimen Local.

Alkateak gaia azaldu du

El alcalde explica el tema.

Ainarak, zerbitzuak optimizatzea denez alde bozkatuko dutela dio.

Ainara dice que como es optimizar los servicios votarán a favor.

Mikelek dio, Irura eta Urnietako udalen arteko lan hau, eraginkorra izatea dela eta etorkizunean ere beste lan batzuk elkarlanean egiteko apostua egiten dutela.

Mikel dice que este trabajo entre los ayuntamientos de Irura y Urnieta es eficaz y apuestan por realizar otros trabajos en colaboración en el futuro.



San Juan, 5 - 20130 Urnieta Gipuzkoa - P2007700D   943 008 000   943 008 037   urnietakoudala@urnieta.eus   urnieta.eus

Bozketara jo da, honako emaitzarekin:

Alde: 12
Urnietako Eusko Abertzaleak: 7
Udal talde sozialista: 3
Urnietako Eh Bildu: 2

Kontra: 0

Abstentzioa: 0

Ondorioz, ezarritako lege tramitazioa jarraituta, eta ikusirik Antolakuntzako Batzorde Informatzaileak 2022ko urriaren 5ean egindako irizpena, Udalbatzak aho batez honako hau

**ERABAKI DU:**

1. Irurako Udalak Urnietako Udaleko H.A.Z.eko informatzaile plaza bat eta Irurako Udaleko Idazkaritzako administrari plaza bat betetzeko egindako kudeaketa-gomendioa onartzea.

2. Erabaki honen ziurtagiria Irurako Udalari bidaltzea.

Se ha procedido a la votación, con el siguiente resultado:

A favor: 12
Urnietako Eusko Abertzaleak: 7
Grupo municipal socialista: 3
Urnietako Eh Bildu: 2

En contra: 0

Abstención: 0

En consecuencia, realizada la tramitación legalmente establecida y visto el Dictamen de la Comisión Informativa de Organización de 5 de octubre de 2022, el Pleno ha adoptado por unanimidad el siguiente

**ACUERDO:**

1. Aceptar la encomienda de gestión realizada por el Ayuntamiento de Irura para la la provisión de una plaza de informador/a del S.A.C. del Ayuntamiento de Urnieta y una plaza de Administrativo/a de Secretaría del Ayuntamiento de Irura.

2. Remitir certificado de este Acuerdo al Ayuntamiento de Irura.

**5.- Lehiaketa bidez ondasun-izaerako higiezina besterentzea: H.I.E. 28 “MIRAVALLES”eko 6861 Erregistro-Finka. (Udalbatza) 2022IORO0076 Esp**

******

**LEHENENGOA.- Aurrekariak**

I. 2022ko urriaren 4ean Urnietako Udaleko Alkateak probidentzia eman zuen hiri-izaerako HIE 28 "Miravalles" eremuan dagoen Urnietako 6861 erregistro-finka zenbakia eta katastro-erreferentzia 8288093 (6149987 U zenbaki finkoa) duen higiezina besterentzeko espedientea hasteko.

II. 2022ko urriaren 4ean udal-idazkariak lege-txostena eman zuen, espedienteari zegokion legedi aplikagarria eta prozedura zehaztuz.

III. Higiezina kokatuta dagoen partzela teknikari eskudun batek tasatua izan da. Espedientean aurkitzen da 2022ko uztailaren 6ko tasazio-

**5.- Enajenación mediante concurso de bien inmueble patrimonial: Finca Registral 6861 del A.I.U. 28 “MIRAVALLES”. (Pleno) Exp. 2022IORO0076**

******

**PRIMERO.- Antecedentes**

I. Con fecha 4 de octubre de 2022 el Alcalde del Ayuntamiento de Urnieta dictó providencia por la que se incoaba expediente para proceder a la enajenación del inmueble de naturaleza Urbana, con número de finca registral 6861 de Urnieta y con Referencia Catastral 8288093 (número fijo 6149987 U), sito en el A.I.U. 28 “MIRAVALLES”.

II. El 4 de octubre de 2022 el Secretario Municipal emitió informe jurídico sobre la legislación aplicable y el procedimiento a seguir en el expediente.

III. La parcela en la que se sitúa el inmueble ha sido tasada por técnico competente, figurando informe de tasación de fecha 6 de julio de 2022 suscrito por el tasador Xabier Galparsoro



San Juan, 5 - 20130 Urnieta Gipuzkoa - P2007700D   943 008 000   943 008 037   urnietakoudala@urnieta.eus   urnieta.eus

txostena, Xabier Galparsoro Lozano tasadoreak sinatua. Tasazio horretan oinarrituta, 2022ko urriaren 3an udal arkitekta teknikoak txostena eman du higiezinaren balio eta egoerari buruz, zeinak 3.855.364,32 euroko balioa duela egiaztatzen duen.

IV. Espedientean dago 2022ko urtarrilaren 5eko ziurtagiria, non zehazten den deskribatutako higiezina Udal jabetza eta eskubideen inbentarioan inskribatuta dagoela, udal jabetzako ondasun bezela, ondasun patrimonial kalifikazioarekin.

V. Higiezinaren lehiaketa bidezko eskualdaketa arautuko duten baldintzen arauak prestatu dira, zeinak aplikagarria den araudia betetzen duten.

**BIGARRENA.- Legedi aplikagarria**

Oinarrizko legeria aplikagarria honako hau da:

- 2016/7 (EB) Betearazpen Erregelamendua, Batzordearena, 2016ko urtarrilaren 5ekoa, Europako Kontratazio Agiri Bakarraren formulario normalizatua ezartzen duena.
- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituena –TAOL-.
- 781/1986 Legegintzako Errege Dekretua, apirilaren 18koa, Toki Araubideari buruz Indarrean dauden Lege Xedapenen Testu Bategina onesten duena - TATB.
- 2568/1986 Errege Dekretua, azaroaren 28koa, Toki Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duena – ROF-.
- 33/2003 Legea, azaroaren 3koa, Herri Administrazioen Ondareari buruzkoa.
- 1372/1986 Errege Dekretua, ekainaren 13koa, Toki Erakundeen Ondasunen Erregelamendua onartzen duena – TEOE-.
- 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa -SPKL-.
- Lurzoru eta Hirigintzako ekainaren 30eko 2/2006 Legea – LHL-.
- 1889ko uztailaren 24ko Errege Dekretua, Kode Zibila argitaratzen duena.

Lozano. Igualmente, en base a la referida tasación, se ha elaborado informe de fecha 3 de octubre de 2022 por la Arquitecta Técnica municipal sobre la valoración y situación del inmueble, del que resulta un valor de 3.855.364,32 euros.

IV. Figura en el expediente certificado de fecha 5 de enero de 2022 en el que consta que el inmueble descrito figura inscrito en el Inventario de Bienes y Derechos de este Ayuntamiento, como bien de propiedad municipal, con la calificación de bien patrimonial.

V. Se han redactado los pliego de Cláusulas que regirán la enajenación por concurso del bien inmueble, los cuales se ajustan a la legislación aplicable.

**SEGUNDO.- Legislación aplicable**

La legislación básica aplicable es la siguiente:

- Reglamento de Ejecución (UE) 2016/7 de la Comisión, de 5 de enero de 2016, por el que se establece el formulario normalizado del documento europeo único de contratación.
- Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local -LRBRL.
- Real Decreto Legislativo 781/1986, de 18 de abril, por el que se aprueba el texto refundido de las Disposiciones Legales Vigentes en materia de Régimen Local –TRRL-.
- Real Decreto 2568/1986, de 28 de Noviembre, por el que se aprueba el Reglamento de organización, funcionamiento y régimen jurídico de las entidades locales– ROF-.
- Ley 33/2003, de 3 de noviembre, de Patrimonio de las Administraciones Públicas -LPAP-.
- Real Decreto 1372/1986, de 13 de junio, por el que se aprueba el Reglamento de Bienes de las Entidades Locales -RBEL-.
- Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público -LCSP-.
- Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo –LSU-.
- Real Decreto de 24 de julio de 1889 por el que se publica el Código Civil.



San Juan, 5 - 20130 Urnieta Gipuzkoa - P2007700D 943 008 000 943 008 037 urnietakoudala@urnieta.eus urnieta.eus

- 27/1983 Legea, azaroaren 25ekoa, Autonomia Erkidego Osorako Erakundeen eta bertako Lurralde Historikoetako Foruzko Jardute-Erakundeen arteko harremanei buruzkoa.

**HIRUGARRENA.- Gogoeta juridikoak**

**LEHENA**. – TAOLen 5. artikuluan, TATBren 1. artikuluan eta ROFen 3. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, toki-erakundeek **gaitasun juridiko** osoa dute mota guztietako ondasunak eta eskubideak besterentzeko.

**BIGARRENA**.- Oro har, ondare-ondasunak besterentzeko prozedura eta modu normala **lehiaketa publiko** bidez irekitakoa izango da. Horrekin bat egiten dute lehia eta publizitate printzipioek, interes publikoak eskuratzeko eta babesteko interesa dutenen arteko berdintasunak (toki-erakundearentzat onura handienak lortzea). Kasu horietan, eskaintza preziora mugatu behar da, eta ezin da proposamen desberdinik onartu. Horrek gardentasun- eta objektibotasun-maila handia ematen dio adjudikazio-prozedurari, eta elementu horiek biak nabarmentzen dira HAOLen 8. artikuluan, ondasunak, eskubideak eta ondare-betebeharrak besterentzeari dagokionez.

**HIRUGARRENA**.- Berariazko araurik ezean, ondare-ondasunen kostu bidezko xedapena, ondasun horiek prestatzeari eta esleitzeari dagokienez, administrazio publikoen kontratazioa arautzen duen araudiak arautuko du. Bestalde, SPKLren 9.2 artikulura jotzen badugu, salerosketa-kontratuak eta ondasun higiezinen, balore negoziagarrien eta jabetza gorpuzgabeen gaineko gainerako antzeko negozio juridikoak kontratu pribatuen izaera izango dute beti, eta **ondare-legeria** arautuko dute, SPKLren eremutik kanpo geratuko dira, eta lege honen printzipioak sor daitezkeen **zalantzak eta hutsuneak** ebazteko baino ez dira aplikatuko.

**LAUGARRENA**.- Ondasunen egoera fisikoa eta juridikoa araztea ez da beharrezkoa, ez eta mugaketa egitea (TEOEren 113. artikulua), eta espedientean dago 2022ko urtarrilaren 5eko ziurtagiria, non zehazten den deskribatutako higiezina Udal jabetza eta eskubideen inbentarioan inskribatuta dagoela, udal jabetzako ondasun bezela, ondasun patrimonial kalifikazioarekin.

- Ley 27/1983, de 25 de noviembre, de Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los Órganos Forales de sus Territorios Históricos.

**TERCERO.- Consideraciones jurídicas**

**PRIMERA**. -De conformidad con lo previsto en los artículos 5 LBRL, 1 TRRL y 3 ROF, las entidades locales, tienen plena **capacidad jurídica** plena para enajenar toda clase de bienes y derechos.

**SEGUNDA**.- Por regla general el procedimiento y la forma normal de enajenación de bienes patrimoniales será el abierto por **concurso público**. Con ello confluyen los principios de concurrencia y publicidad, igualdad entre los interesados en la adquisición y protección de los intereses públicos (obtención de los mayores beneficios para la Entidad Local). En estos casos la oferta ha de limitarse al precio, no pudiendo admitirse propuestas diferentes, lo que otorga al procedimiento de adjudicación un alto grado de transparencia y objetividad, elementos, ambos, destacados en el artículo 8 LPAP al tratar las enajenaciones de bienes, derechos y obligaciones patrimoniales.

**TERCERA**.- En defecto de normas específicas, la disposición onerosa de bienes patrimoniales se regirá, en cuanto a su preparación y adjudicación, por la normativa reguladora de la contratación de las Administraciones Públicas. Por otra parte, si acudimos al artículo 9.2 LCSP, los contratos de compraventa y demás negocios jurídicos análogos sobre bienes inmuebles, valores negociables y propiedades incorporales... tendrán siempre el carácter de contratos privados y se regirán la **legislación patrimonial**, estando excluidos del ámbito de la LCSP, aplicándose los principios de esta Ley exclusivamente para resolver las **dudas y lagunas** que pudieran presentarse.

**CUARTA**.- No es preciso depurar las situaciones física y jurídica de los bienes, ni la práctica de deslinde alguno (artículo 113 RBEL), y figura en el expediente certificado de fecha 5 de enero de 2022 en el que consta que el inmueble descrito figura inscrito en el Inventario de Bienes y Derechos de este Ayuntamiento, como bien de propiedad municipal, con la calificación de bien patrimonial.



San Juan, 5 - 20130 Urnieta Gipuzkoa - P2007700D 943 008 000 943 008 037 urnietakoudala@urnieta.eus urnieta.eus

**BOSTGARRENA**.- Higiezina kokatuta dagoen partzela teknikari eskudun batek tasatua izan da. Espedientean aurkitzen da 2022ko uztailaren 6ko tasazio-txostena, Xabier Galparsoro Lozano tasadoreak sinatua. Tasazio horretan oinarrituta, 2022ko urriaren 3an udal arkitekta teknikoak txostena eman du higiezinaren balio eta egoerari buruz, zeinak 3.855.364,32 euroko balioa duela egiaztatzen duen. Tasazioa egin zenetik urtebete baino gehiago igaro bada eta behin betiko erabakirik hartu ez bada, beste balorazio bat egin beharko da.

**QUINTA**.- La parcela en la que se sitúa el inmueble ha sido tasada por técnico competente, figurando informe de tasación de fecha 6 de julio de 2022 suscrito por el tasador Xabier Galparsoro Lozano. Igualmente, en base a la referida tasación, se ha elaborado informe de fecha 3 de octubre de 2022 por la Arquitecta Técnica municipal sobre la valoración y situación del inmueble, del que resulta un valor de 3.855.364,32 euros. Si transcurre más de un año desde la realización de la tasación y no se ha adoptado acuerdo definitivo se tendrá que llevar a cabo una nueva valoración.

**SEIGARRENA**.- TEOEren 109.1 artikuluaren eta TATBren 79.1 artikuluaren arabera eta Autonomia Erkidego Osorako Erakundeen eta bertako Kondaira-Lurraldeetako Foruzko Ihardutze-Erakundeen Arteko Harremanei buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legean xedatutakoaren arabera, kontuan hartuta salmenta-zenbatekoa toki-erakundearen aurrekontuko baliabide arrunten % 25 baino handiagoa dela, **beharrezkoa izango da Gipuzkoako Foru Aldundiari saltzeko berariazko baimena eskatzea** eskualdaketa formalizatu aurretik.

Besterentzea eskritura publiko bidez formalizatu beharko da (KZko 1280.1 artikulua), aurreko lerrokadan aipatutako baimena eskuratu eta gero.

**SEXTA**.- Según los artículos 109.1 RBEL y 79.1 TRRL y la Ley 27/1983, de 25 de noviembre, de Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los Órganos Forales de sus Territorios Históricos, dado que de la valoración se deduce que el importe de venta excede del 25% de los recursos ordinarios del Presupuesto de la Entidad Local, **es necesario solicitar autorización expresa de la venta a la Diputación Foral de Gipuzkoa** con anterioridad a la formalización de la transmisión.

La enajenación habrá de formalizarse mediante escritura pública (artículo 1280.1 CC) una vez obtenida la autorización referida en el párrafo anterior.

**ZAZPIGARRENA**.- Ondare-ondasunen besterentzearen zenbatekoa ezin izango da, inola ere, gastu arruntak finantzatzeko erabili.

**SÉPTIMA**.- En ningún caso el importe de la enajenación de bienes patrimoniales se podrá destinar a financiar gastos corrientes.

**ZORTZIGARRENA**.- Jakinarazten da eskualdaketaren xede den higiezinak **Udalaren Lurzoruaren Udal Ondarearen barruan** egon behar duela. Ondorioz, nahiz eta ulertzen da enkante publiko bidez besterentzea librea izango litzatekela LHLren 116.4 artikuluaren arabera, **besterentzetik eratorritako diru-sarrerak LHLren 115. artikuluan aurreikusitako baliabide eta helburuetara bideratu beharko dira**.

**OCTAVA**.- Igualmente, se informa de que el inmueble objeto de enajenación debe ser **integrante del Patrimonio Municipal de Suelo del Ayuntamiento**. Por ello, si bien se entiende que su enajenación por concurso público seguiría siendo libre de conformidad con el artículo 116.4 de la LSU, **los ingresos derivados de la enajenación deberán destinarse a los recursos y finalidades previstos en el artículo 115 de la LSU**.

**BEDERATZIGARRENA**.- TEOEren 17.1 artikuluak ezartzen duenez, "*Toki-korporazioak behartuta daude beren ondasun, eskubide eta betebehar guztien inbentarioa egitera, horien izaera edo*

**NOVENA**.- El artículo 17.1 del RBEL, establece que "*las Corporaciones locales están obligadas a formar inventario de todos sus bienes, derechos y obligaciones, cualquiera que sea su naturaleza o*



San Juan, 5 - 20130 Urnieta Gipuzkoa - P2007700D   943 008 000   943 008 037   urnietakoudala@urnieta.eus   urnieta.eus

*eskuratzeko modua edozein dela ere*". Horrela, aipatutako besterentzeak inbentarioko higiezinen epigrafean baja emango du, eta horren berri eman beharko dio osoko bilkurari urteko osoko bilkuran egindako zuzenketan.

*forma de adquisición*", de esta forma la mencionada enajenación ocasionará baja en el epígrafe de inmuebles del Inventario, de las que habrá dar debida cuenta al Pleno en la rectificación anual plenaria.

**LAUGARRENA.- Organu eskuduna**

**CUARTO.- Órgano competente**.

SPKLren 2. xedapen gehigarriaren 10. lerrokadan aurreikusitakoaren arabera, higiezinaren balioak aurrekontuko baliabide arrunten % 10 eta hiru milioi euroko zenbatekoa gainditzen duenez, **Osoko Bilkurari dagokio** kontratazio-organoaren eskumenak betetzea. Ondorioz, nahitaezkoa izango da gaia dagokion informazio-batzordearen aurretiazko irizpenaren izapidearen mende jartzea (AJAren 123.1 artikulua), eta **kideen legezko kopuruaren gehiengo osoaren aldeko botoa beharko da**, ondasunen balioak aurrekontuko baliabide arrunten % 20 gainditzen baitu (TAOLen 47.2.m artikulua).

Según lo previsto en la DA 2ª. 10 LCSP dado que el valor del inmueble supera el 10% de los recursos ordinarios del presupuesto así como el importe de tres millones de euros, **le corresponde al Pleno** las competencias como órgano de contratación, resultando preceptivo el sometimiento de la cuestión al trámite del dictamen previo de la Comisión Informativa correspondiente (artículo 123.1 ROF). Además, dado que el valor de los bienes supera el 20% de los recursos ordinarios del presupuesto, se requiere **el voto favorable de la mayoría absoluta del número legal de sus miembros** (artículos 47.2.m LBRL).

Alkateak gaia azaldu du.

El Alcalde expone el tema.

Hermek dio, garbi utzi nahi dituztela beraien argudioak. Helburuak ez dituztela beti bitartekoak justifikatzen. Gainera, berain ustetan jakin beharko lukete, saldu aurretik, zertan gastatu litzateken salmentatik ateratarko dirua. Lehen antolatu diren batzarretan ezezkoa eman zutela, eta behin eta berriz eskatu dutela jasotako diru honen erabiliera zein izango den, baina ez dutela inoiz jaso informazio hau. Transparetnzia falta dagoela. Bestalde duela 6 hilabete baino miloi 1 € gutxiagotan baloratu dela lur sail hau, eta gainera ordainketa baldintzak okerrera joan direla. Diruaren erabilera zein den jakin bitartean, ez daudela ados salmenta hau aurrea eramatearekin eta beraz, ezezkoa emango dutela.

Herme dice que quieren dejar claros sus argumentos. Que la finalidad no siempre justifica los medios. Además, creen que deberían saber en qué se podría gastar el dinero de la venta antes de venderlo. Que en las reuniones celebradas anteriormente votaron en contra y han solicitado reiteradamente el destino de este dinero, pero nunca han recibido esta información. Que hay falta de transparencia. Por otra parte, esta parcela se ha valorado en un millón de euros menos que hace 6 meses y además las condiciones de pago han empeorado. Que mientras no se conozca el destino del dinero, no están de acuerdo con la enajenación y por lo tanto votarán en contra.

Ainarak dio, DBHko patioa diru sarrera honekin egin zitekela entzun zutela behin, baina bere ustetan erabakai hauek denon oneritziaz onartu beharko lirakela eta jakin nahi dute beraiek ere zertan erabiliko den diru kopuru hau. Informazio falta honekin, kontra bozkatuko dutela.

Ainara dice que una vez escucharon que posiblemente el patio de la ESO se haría con parte de este ingreso, pero cree que estas decisiones deberían ser aceptadas con el beneplácito de todos y quieren saber a qué se destinará también esta cantidad. Con esta falta de información, votarán en contra.

Mikelek dio, ados daudela salmenta hau aurrera eramatearekin. Operazio honetan dauden ordainketa baldintza leuntzearekin abantaila nagusia operazio hau erreztea dela, eta hasiera

Mikel dice que están de acuerdo en llevar a cabo la venta. Que la principal ventaja de atenuar las condiciones de pago es facilitar la operación.Que inicialmente se cobrará un millón de euros,



San Juan, 5 - 20130 Urnieta Gipuzkoa - P2007700D 943 008 000 943 008 037 urnietakoudala@urnieta.eus urnieta.eus

baten miloi bat euro jasoko lukela udalak, arrisku edo susmoak gutxituz (diruaren erabilerari dagokionez). Operazio honek sortu dezaken balio erantsia kontutan hartu behar dela, etor daitekeen garapen ekonomikoa, sortu daitezken lan postu berriak, eta hor sor daitezken enpresen udalari ematen dioten balio ekonomikoa. kontutan izanik. Eskolako patioa konpontzeko diru sarrera hau edota beste diru sarreraren bat erabili ahal izango dela, eta hortik aterako den etekin politikoa denona izaten jarraitzea espero dutela.

